

Amara Berri

Sargoriaren kontra, izotza

Idoia Elso [943 21 67 43]

duela 27 urte zabaldu zen Izotz Jauregia. Urte horietan guztietan, uda denboraldian, jauregia itxita egon da. Haatik, uda honetan lehenengo aldiz, bertaratzen direnek zabalik aurkituko dute. Gainera, eskaintza bereziak egingo dira.

Izotz Jauregi berritua otsailean estreinatu zen. Orduetik, 30.000 lagun igaro dira bertatik.

Azpiegitura horietan irristatzeaz gain, beste hainbat jarduera ere egin daiteke.

Aurten, adibidez, hockey mintegi bat antolatu da. Madril, Angelu eta Donostiako hamabost urtetik hogeitau bitarteko gazte askok parte hartu zuen bertan.

Azken asteetan jende ugari igaro da Izotz Jauregitik. Donosti Cup futbol lehiaketa ospatu zen egunetan, esaterako, mila bat lagun hurbildu ziren.

Izotz Jauregian txikienek ere beren lekua dute. Bertan jolaserako tokia dago. Hori dela eta, eguraldi txarra egon denean, hiriko udaleku ire-



Otsailetik, 30.000 lagun izan dira Izotz Jauregian.

kietan dabiltzan neska-mutil talde ugari bertaratu da.

Uda honetan sargoriari

fresko-fresko aurre egiteko aukera dugu, beraz, Izotz Jauregian.


Martutene

Futbol zelaiarekin tirabirak

Amaia Etxeberria [943 21 09 37]

bi urte dira Martutenen futbol zelai berria eraiki zela. Auzotarren eskaera etengabeen ondoren, azkenean auzoak zelai berria lortu zuen. "Auzotarrek eskatu zuten zelai berria eraikitzea. 18 urte ibili gara borroka horretan", jakinarazi digu Yabenek, auzo elkarteko buruak. Haatik, bi urte hauek ez dira batere lasaia izan, liskarrak behin eta berriro sortu baitira.

Futbol federazioak erabil-



Gaur egun Martuteneko zelaia erabiltzeko orduan, federazioak du lehentasuna.

tzen du zelai hau, eta hori da hain zuzen ere, auzotarrek onartzen ez dutena. Hau da, 18 urte ondoren eta auzoak eginiko proposamena izanda, zelaia federazioak bereganatzea. Gaur egun zelaia erabiltzeko orduan federazioak du lehentasuna. Tamalez, auzotarrek zelaia erabili nahi badute, federazioko enbustegietara egokitu behar dute. "Guk gure entrenamendu eta partiduen ordutegia ezartzeko askatasuna nahi dugu. Zelaia

federazioak erabiltzea ongi iruditzen zaigu, baina auzotarren ekimenez egin zen heinean, auzoak lehentasuna izan dezan nahi dugu. Hau errespetatuz gero, guk ez dugu oztoporik jarriko federazioak zelaia erabil dezan", argitu digu Yabenek.

Auzotarrak gogor

Auzotarrek argi eta garbi adierazi dute ez dutela inolaz ere onartuko zelaia federazioren eskuetan uztea. Badaki-

te horren kudeaketa federazioaren esku uzten duen kontratu bat dagoela. Hala ere, auzotarrek zelaia nahi dutenean erabiltzeko eskubide osoa izan nahi dute. Hori dela eta, Jose Yabenek Kirol Patronatuko ordezkariarekin, Federazioko zuzendariarekin, hainbat zinegotzirekin eta alkatearekin hitz egin eta arazoaren berri eman die horiei guztiei. Hala ere, auzo elkarteko buruak ez du gustuko erantzunik jaso. Ondorioz, zelaia ixtea ere proposatu du.

"Zelaia ixtea azken neurria izango litzateke, baina denbora askotxo pasa da, eta gureari eusteko beharrezkoa dela ikusten badugu, zelaia ixteko prest gaude", esan digu Yabenek.

Une honetan, auzotarrak udaletzeko enbustunaren zain daude. Erantzuna gustuko ez badute, astebete barru zelaia itxiko dute.

Auzotarrak zelaia ixteko prest daude